

Nafarkaria

• ostirala • 1997ko abenduaren 12a

Egunkaria


Gehigarri honetan



Garralda • Pablo Mandazen Fundazioaren proiektua.

Iñaki Gaztelu • Etorkizun handiko erremontista.

• LUIS AZANZA



Gayarre antzokiko etorkizun berria

Saide enpresak urte askoz Iruñeko Gayarre antzokiaren maiztergoa eduki eta gero, datorren urtetik aurrera berriro ere Udalaren eskuetara igaroko da. Udaleko arduradunek kultur eskaintza zabalagoa emateko aukera izanen duten arren, fundazio batek eginen duen kudeaketa nola gauzatu zehazteke dago.



Garralda • Venezuelako Warao indioen aldeko proiektua

Pablo Mandazen Fundazioak Orinocoko ahoan komunitate berria sortzen lagunduko du

Garraldako Pablo Mandazen Fundazioak Venezuelako Warao indioentzat Orinocoko ahoan komunitate berri bat eraikitzeke proiektua bultzatu du Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin, eta jadanik gauzatzen ari da.



Warao indioak Orinoco ibaiaren iberrean bizi dira, Venezuelan.

HERRIALDETIK JASOTAKO LAGUNTzarekin sakabanatuak dauden indijenak batu eta bertan gelditzea lortu nahi da.

Garraldako Pablo Mandazen Fundazioa Venezuelan izen bera daraman beste baten ondotik sortu zen. Mandazen gazterik Venezuelara joan zen eta han hezkuntza eta natura baliabideak ikeritzeko La Salle Fundazioa sortu zuen 1940an. Geroztik, bertako indioen hainbat azterketa egin eta proiektu ere gauzatu ditu. La Salle tokian tokiko kultura eta gizartearen alde egiten duen lanaren lekukoa jarraitu nahirik edo, joan den urtean sortu zen Garraldan Pablo Mandazen Fundazioa. Erakundearen bidez Nafarroako Gobernuari Venezuelako Orinoco ibaiaren ahoan barna sakabanatuak bizi diren indioen komunitate bat eraikitzeke proiektua aurkeztu zen. Joakin Irastorza, Mandazen Fundazioko kideetako batek dioenez, egokitzapenerako

arazo franko dituzte eta hiriburuaz heziketa lortzen duten gehienak ez dira bueltatzen. Waraoa sakabanaturik bizi da Orinocoko ibaiaren ahoan eta Mendebaldeko gizarteak zibilizatu gabeko guneeetan.

Egun 20.000 Warao inguru bizi dira Venezuelan eta nekazaritza eta arrantza dute bizimodu. Pablo Mandazen Fundazioak egindako proiektuak indioen hezkuntza, osasuna eta lan produktiboa bultzatzea eta sustatzea du helburu. Proiektuaren aurrekontua 15 milioi pezetakoa da (600.000 libera) eta horietatik sei milioi Nafarroako Gobernuak eman ditu; gainontzekoa Venezuelako Estatuak eta La Salle Fundazioak jarriko dute. Egitasmoa joan den urtean hasi zen gauzatzen eta 1998an egon

beharko du bukatua. Jadanik eskola, etxebizitzak eta denda bat eraiki dira. Komunitatean oraingoz berrogei eta hamar indijena bizi dira baina oihanean barna sakabanatuak bizi diren beste talde batzuk gerturatuko dira aurki. Nolanahi ere, komunitate-rainoko bidea, La Salle Fundazioko jendearen etxebizitza eta eskulangintzak ikasteko nahiz bilertako zentro komunala falta dira oraindik. Waraoek lurralde zingiratsuari ohitutako nekazaritza eginen dute eta eskolan La Salleko begirale batek lagundurik neska warao bat dabil haurrak hezitzen gaztelaniaz zein warao hizkuntzan.

Nolanahi ere, Irastorzak azpimarratu duenez, indioekin lan egiteko aukera ez da bat-bateko

gauza izan. Pablo Mandazen aspaldian hasi zen waraoak ikeritzeko, eta 1957an Caracasen lehenbiziko warao-gaztelania hiztegia argitaratu zen. Geroztik, hainbat ikerketa egin dira indio horien inguruan. «Pablo Mandazen Fundazioa hemengo ohiturak, kultura eta hizkuntza berpizten saiatzen den modu berean, han ere, beren herria, ohiturak eta kultura maitarazi nahi diegu», gaineratu du Irastorzak.

Proiektuak ez dira hori bukatzen, ordea. Venezuelakoa bide onean da jadanik, baina Pablo Mandazen Fundazioak Garraldan irekitzeko asmoa zuen artzain eskolaren proiektua ez du gauzatu eta egun nahiko motel dabil.

→ Irene Arrizurieta

Betelu

Natura 2000an sartuko dute bertako artadia

IRUÑETIK BETELURA HELDU bezain laster, artadi eder bat bada Araxes ibaiaren bi aldeetara. Bertan, duela lau urte, udaran bertako bizilagunak bainatu ahal izateko, presa antzeko bat eraiki zuten. Arte horiek emandako itzala eskertzeko suertatzen da Lorentzok gogor jotzen duenean. Baina ziur bat baino gehiago gozatu dela itzal horretaz, zuhaitz horien balio ekologikoaz ohartu gabe.

Nafarroako Gobernuo Ingurugiro Sailak Beteluko artadia babestu beharreko eremua zela hitzartu zuen. Basoko fauna eta landareen babesa bermatzen duen 1992ko Europako Batasuneko legeak babestu du gaur egun.

Baina, hemendik gutxira, ez da hau izango artadia babestuko duen legedi bakarra. Izan ere, hemendik gutxira artadia Europako Natura 2000 sare ekologikoaren barruan sartuko dute.


Araxes ibaiaren bi aldeetan bada arte ugari, eta baita artea eta karraskaren nahastearen ondorioz sortutako zuhaitzak ere. Nafarroan bakarrak dira, eta harriztekoa bada ere, kare lur artean dituzte beren sustraiak.

Ingurugiro Saileko adituek diotenez, gaur egun Beteluko artadiak bat-bateko eraberritze prozesu batean daude murgildurik. Eskualdeko burdinolak aspaldian itxi izana artearen onerako izan omen da, eta gainera, ardoarekin gertatzen den moduan, urteek aurrera egin ahala, onera joko omen dute ziga hauek.

→ Urko Aristi

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Kurba batek bere kurbadura zentuz aldatzen duenean —puntu jakin batean eginez—, bere inflexioaz ari gara. Esan nahi baita, kurbak beste norabide bat hartu duela, beste perspektiba edo eitea erakusten digula. Oroz gain, geometriari dagokio kontzeptu hau. Baina, halaber, bada beste adiera bat lehenago esandakoarekin zerikusirik ez duena: aho-tsez ari bagara, adibidez, bozarekin egiten duguna, doinu edo tonu batetik bestera pasatzerakoan, izanen litzateke baita ere, inflexioa. Bi adierak hola harturik, irudi lezake geometriak eta bozak ez dutela elkarren arteko inflexio gunerik, ezinezkoa baitirudi elkarren eskutik inora

Inflexio puntua

eramatea. Biak lotzen dituen erlazioa inondik ere ikusten ez delako. Antza.

Bi adierok giza kontuetara ekarriaz, sorgin-gurpilez osatutako kurba baten itxura hartzen diot nik gure geometriari. Euskal kurbadurak, horrela, zentuz aldaezina dirudi, zurruna da oso, behin eta berri berririk da-eta bere jiraren ibilbide itsuan: sorgin zoroa. Gurpila, bestalde, etenik gabeko jiratzeko horretan, doinu bakarrekoa da: bizi bagara mende gauzkatelako da, bestelakoan!...

Baina, gauzak ez dira ematen duten bezala: joandako uztailaz gero, Ermuko doilorkeriaren ondorenik, anitz kurbak izan dute euren inflexio puntua euskal eta espainiar geometrian. Gurpilen karran-

karik ere bestelakoa izan da ordutik hona. Ildo bereetik joz, HBko buruzagien espetxeratzeak, Estatuaren menpeko botere judizialak doilor ere ekin duenak, eragin du jada beste hainbeste kurba trinkoren norabidea aldatu beharra. Betiko leloaz gogaitu bide dira karraka eragileak ere: beste tolestura bat behar du euskal geoherriak, eta beste aire bat aditu beharrean gaude ibilbide historiko honetan.

Gure herriarendako onena nahi dugunok, ilusioa jarrita dugu bihar, beste eite eta beste doinurik antzeman dela Bilboko kale kurbadunetan. Beste mintzorik diskurtsoan eta beste zentzurik kurbaduran, eta hori guztia, erabat zurrundu baino lehen. Hartarako premiarik bada. Redios!

Tutera

Erriberan
'Hamabi ordu euskaraz' bihar

BIHAR, ABENDUAREN 13AN, Hamabi ordu euskaraz festa ospatuko da Erriberako hiriburuan. Urtero bezala, aurten ere, AEK-k antolatutako jai horretan, Tuterakoek ez ezik, Nafarroako hegoaldeko beste herrietako euskaltzaleek ere egun osoan euskaraz jarduteko aukera ezin hobe izanen dute. Egitarauan ekitaldiak goiz-goizetik hasiko dira, besteak beste, 09:00etan hasiko den futbol txapelketarekin. Norgehiagokak AEK-ko ikaslez, irakaslez eta lagunez osaturiko taldeen artean jokatuko dira. Tuterako kiroldegitik atera gabe, aurreko asteetan egin den pilota txapelketako finala ikusteko aukera izanen da, Fustiñanako eta Cabanillasko bikoteen artean. Eguardi aldean, berriz, Tuterako karriketan barrena eginen den kalejiraren ostean, herri bazkaria izanen da Beterri

peñaren egoitzan. Arratsaldean, AEK-ko klaseek eginiko jokoek alaituko dute bazkalondoa. Une horretan, bost dira Tuterako Arrigarai Euskaltegian dauden taldeak, eta horietan, Alesbesen, Cadreitan, Fustiñan eta Fontellasen dauden taldeak gehitu behar zaizkie. Eguneko egitaraua Tutera ostatuan eginen den afariarekin bukatuko da.

Edozein modutan ere, Erriberakook eta hara hurbilduko direnek bihar ospatuko dugun festak pasa den asteazkenean izan zuten hasiera. Asisko Urmenetak eta Juan Karlos Etxegoien Xamarrek eman zuten hitzaldiarekin. Eukal umorea izan zuten mintzagai, bai gure literatura idatziaren aurretikoa, bai idazle klasikoek adibiderik barrengarrienak plazaratu zizkigutenak.

→ Joxe Miel Bidador

• Erronkari •



JOXE LACALLE

Iritsi da elurra Belaguara

Negua hurbiltzen den heinean elurra ate joka dator Nafarroako Pirinioetara. Joan den astean botatako elurak oraindik badirau, eta Belagua aldean dena zuri-zuri dago. Lehenengo elurteekin batera, inguru horretan negu oro ohikoa den fondoko eskia egitera hurbildu dira lehenengo kirolariak. Elurak eskia egiteko dauden bideak estali ditu, eta egunotan termometroak gora egin ez duenez, elurak bere horretan dirau. Beraz, joan den aste-buru luzea ez ezik, biharko eta etziko eguna ere apobetxatza hurbilduko denik ere izanen da Izaba aldean eta 1.430 metrora dagoen Belaguako aterpe ondora.

Bera

Haurren txanda
'Herriak eta Hiriak'
kultur hilabetean

AZAROA BUKAERAN HASI ETA HILABETE HONEN hondarra arte iraungo duen Herriak eta Hiriak kultur hilabetean ekintza gehiago izanen da asteburu honetan. Asteburu hau haurren txanda izanen da. Eurentzat espreski prestatutako ipuin lehiaketako sari banakea eginen da, eta ondotik, haurrentzako dantza garaikide saioa emanen da Berako Kultur Etxean. Azkaineko Altxalilik, Berako Gure Txokoak, Etxalarko Altxatak, Sarako Gaztetxeak eta Senpereko

Oxtikenekoak antolatutako kultur hilabete honen izena zuten gaitzat hamabi urtez behetik haurrek euren ipuinak idazteko. Saritutako ipuinak irakurriko dituzte irabazleek, eta ondotik, Ekarle dantza garaikidearen saioa ikusi ahal izanen da. Ekitaldia arratsaldeko 4:30etan hasiko da.

Ez da hori, alabaina, ekitaldi bakarra asteburu honetarako. Gaur bertan, Sarako Omordian mintzaldia emanen du Xabi Larralde, langileen kooperatiba mugimendua mintzagai duela. Bihar, aldiz, Etxalarko Herriko Ostatuan eginen da bertso eta txiste afaria; Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez eta Xabier Silveira bertsoan, eta txiste kontatzen Lasarteko txiste kontalariak ariko dira. Lasartearrek ETB-ko Txiskola saioa lehiaketa irabazi zuten.

→ Jon Abril



herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Zentral hidroelektrikoen historiaz

Ttiti-ttapa-ren azken zenbakiak, eskualdeko zentral hidroelektrikoen historia ekarri du gogora, Aitor Arozena kazetariak sinatu artikularen bitartez. «Bidasaldeko zentral gehienak mende hasieran sortu ziren, lehen hogeitaz ardatzetan. Orduan hasi zen industrializazioa, eta zentral gehienek Gipuzkoa aldeko lantegietarako argindarra sortzen zuten. Herrien beharra —ez gaur adinako, noski— hornitzeko bertzeko zentral ttikiagoak ere izaten ziren, etxe eta auzoen artean. Horrela funtzionatu izan dute ia mende osoan, baina duela hamar bat urte krisia ailegatu zen, bertzeak ere ixteko puntuan ibili ziren eta

elektrizitate-sare orokorrean sartu ziren gehienak».

«Gaur egun zentral guztiak automatizatuak daude eta langile batzuk bertzerik ez dira lanean ari, mantenimendu lanetan. Langile bat bizpahiru zentralen martxa gainbegiratzeko nahikoa izaten da orain. Energia Hidroelectrica de Navarra enpresak hamar zentral kudeatzen ditu, hameka Iberdrolaren esku daude eta badira bertze bost paisei partikularren esku daudenak. Zentralek, sortzen duten eta enpresei saltzen dieten kilowat kopuruaren arabera fakturatzen dute. Hemen inguruan egiten den argia,

energia garbia edo berriztagarria dela kontsideratzen da, zentral guztiak arras ttikiak baitira. Baina beti ez da hain energia garbia izan, batez ere uda partean».

Ttiti-ttapa-ko artikulua, Pedro Miguel Ibarraren, Nafarroako Energia Hidroelektrika enpresako ordezkariaren hitzak jasotzen ditu. Haren ustez, nahiz eta Nafarroan haize parkeen aldeko apustua egin, zentral hidroelektrikoek etorkizunik badute: «Inguruko herrietan energia sobera produzitzen dute eta badute saltzeko, baina hemen dena beharko dugu, haize parkeak, zentralak... elkarren osagarriak dira, inolako arazorik gabe».

Donesaturdiko




oilarra
lumatzen

Juan Kruz Lakasta

Joseba

Josebak 19 urte ditu eta Euskal Filologjako lehen maila ikasten ari da. Kepa bere lagunik onena da. San Fermin ikastolan ezagutu zuten elkar, biok 3 urte zituztela. Harrezkerotik, sekula ez dira banandu. Ikastolan elkarrekin aritu ziren, gehienetan gela berean, BBB burutu arte. Gero, biok Ermitagaña institutuan egin zuten UBI, eta biok Euskal Filologia ikastea erabaki zuten. Horrenbestez, UBI amaituta eta selektibitatea gaindituta, biok elkarrekin bizitzera joan ziren Gasteizera, Alde Zaharrera, Caldereria kaleko pisu batera.



Blok lagun minak dira. Haatik, laguntasun horrek aspaldidanik, pubertarotik, buruhaustek eragin dizkio Josebari. Araza da pubertaroan Joseba hasi zela noizean behin esnatzen izerditan blal, berotuta, hankarte handituta eta Kepa lagun minaren irudia buruan bueltaka. Joseba salatzen zen amesgaizto horri garrantzi handiegirik ez ematen: ez zen Kepa bezainbestetan neskekin ibiltzen -egia esateko, inoiz gutxitan ibiltzen zen neskekin- baina horrek ez zuen zertan esan nahi izan behar homosexuala zenik.

Josebak, haatik, gero eta maizago izan du amesgaiztoa. Gasteizen elkarrekin bizitzera joan zirenetik, kasik egunero esnatzen da berotuta. Eta joan den larunbat gauean eztanda egin zuen. Goizeko hirurak ziren, lruñeko taberna batean zegoen, zeharo mozkortuta, eta Kepa alboan zuen. Bere buruari galde-tu zion homosexuala zen ala ez, eta bere buruak ez zekiela erantzun zion. Horrenbestez, frogatzea erabaki zuen.

Esperimentuak gaseosarekin egiten direnez, Kepari agur esan zion, eta Taconerara joan zen, bakarrik, urduri, mozkor. Parkean sartu zen, eta itzal bat hurbildu zitzaion. Elkarri fereka, farola baten pean jarri ziren. Orduan itzalaren aurpegia ikusi zuen. Harrituta geratu zen. Ezagutzen zuen. Keparen aita zen. Korrika aldegin zuen, argitu gabe armairutik atera behar duen ala ez, argitu gabe armairuan dagoen ala ez. ●

Gayarre antzokia esku berrietan

Ilbeltzetik aurrera berriro ere Udalaren eskuetara pasatuko da eta Fundazio batek kudeatuko du

Urte berriarekin batera, maiztergoa zuen Saide enpresak eta Udalak egindako akordioa dela medio, Gayarre antzokia jabearen esku geldituko da berriz. Hori izanen da Udalak berak kudeatuko duen lehen aldia. Kudeaketa horretarako sortuko den fundazioak eginen duen arren, oraindik erabakitze daude haren egitura eta eskumenak.

IRUÑERA HURBILTZEN DIREN KULTUR IKUSKIZUN UGARI aterbetzen ditu Gayarre antzokiak. Urteak joan urteak etorri Nafarroako hiriburua zabaltzen eta handitzen joan bada ere, Karlos III.a karrikan dagoen antzoki zaharrak bere horretan dirau. Eraikinak ez ezik, kudeaketak ere ez du izan aspalditxoan aldaketarik, jabea Iruñeko Udala izan arren, 1952tik kudeaketa Saide enpresaren (Ikuskizun Higiezen Sozietate Anonimoa) esku egon baita. Jabearen eskuetara itzultzeko saioa berria ez den arren -1984an Julian Balduz sozialista alkate zela Udala berreskuratzen saiatu zen- oraingoan asmoa burutuko da.

Joan den irailean sinatu zuen Javier Chourraut alkateak, Iruñeko Udalaren izenean, eta Saide enpresako ordezkariak maiztergoa kontratua bukatu baino bost urte lehenago Gayarre antzokia itzultzeko akordioa. Saide enpresak 1952ko maiatzaren 3an hartu zuen antzokiko maiztergoa eta 2002ra arteko kontratua zuen Udalarekin. Itzulera 1998ko ilbeltzaren 1ean gauzatu da, ziurrenik datorren abenduaren 26an eginen den udalbatzaren baitza lortu eta gero. Guztia uste bezala badao, Udalak azkenaldian antzokia berreskuratzeko izan duen gogoa aseko du. Azken urteetan erakundeak antolatzen dituen ekitaldi kulturalak gero eta gehiago direla aintzat hartuz, Kultura arloak eskualdaketa beharrezkoa dela



Gayarre antzokia Karlos III. etorbidean kokatua dago. ● LUIS AZANZA


erabaki du. «Udalak Iruñean antolatzen dituen ekitaldi kulturalak gero eta gehiago dira, baina azpiegitura oso txikia; hori dela eta, areto berriak egokitu behar izan ditugu edota Gayarre antzokiaren alogeragatik diru handia ordaindu. Aurten bakarrik 20 milioi pezeta ordaindu behar izan ditugu

(800.000 libera), azpimarratu du Valentín Redín Kultura Galetako zuzendariak. Beraz, Gayarre jabearen eskuetara itzultzeak egitarau zabalagoa egiteko aukera emateaz gain, dirua aurrezteko baloiko du.

Sinatutakoaren arabera, Iruñeko Udala 2002ra arte urtero 11,8 milioi pezeta eta dagoen KPI (Kontsumo Prezioen Indizea) eman beharko dizkio Saideri. Guztira, 64 milioi pezeta inguru izanen da. Datorren urtean lau milioi pezeta jasoko ditu Saidek eta maiatzaren 3tik aurrera hasiko da urtekoa kobratzen. Bien bitartean, maiztergoa zuen enpresak Gayarreko eraikin berean dauden Niza tabernaren eta antzokiko goiko aldeko etxebizitzaren ardua gordeko du 2002ra arte.

Zaharberritu beharra

Dirua aurrezteko eta kultur ekitaldi gehiago egiteko aukerak ez dira izan itzulera akordioa egiteko arrazoi bakarrak. Gayarre premiazkoa du erabateko zaharberritzea, eta horretarako beharrezkoa da jabearen eskuetan egotea. Redinen arabera, zaharberritzea egiteko garaian, dirua ez



Gayarre antzokiko eraikina txikiagia geratu da Iruñearentzat. ● LUIS AZANZA



Gayarre antzokiko ikuspegi orokorra. ● LUIS AZANZA

65 urteko antzokia

Iruñean ezagutzen den lehenengo antzokia 1623an Komediak kalean zegoen Komediaren Etxea izan bazen ere, 1932ra arte ez zuen antzoki modernorik izan. Julian Gayarre Erronkariko tenore famatuaren izena duen antzokia 1931n hasi ziren eraikitzen. Lanak bukatu eta gero, urte bat geroago, 1932ko maiatzaren 3an, inauguratu zuen Karlos III.a Etorbidean. Inaugurazioan Santa Cecilia Orkestrak, Iruñeko Orfeolak eta Artearen Lagunak taldeak hartu zuten parte. Geroztik, antzokiko egiturak bera izaten jarraitu duen arren, aldaketak eta zaharberritzeak ere izan ditu. Moldaketa batzuk

egiteko kasik urtebete itxita egon ondoren, 1950ean zabaldu zen. Bi urteren buruan antzokiaren maiztergoa hartzeko lehiaketa publikorako deia egin zen, eta datorren urtarrietik aurrera indarra galduko duen Saide eta Udalaren arteko berrogeita hamar urteko maiztergo akordioa sinatu zen. 1968an antzokiaren segurtasun sisteman izandako akats bat zela medio hartu zuen eta eszenatokia eta buta-ken ataria kiskali ziren. Hori dela eta, Gayarre atea itxi zuen 1969ko uztaile bitartean. Egindako konponketa harridiek antzokiaren ezaugarriak aldatu zituzten, eta aretoaren akustika, ordu-

arte bikaina, kaxkartu egin zen egurraren gainean porlana jarri zelako. Geroztik moldaketa gehiago izan dituen arren, azpiegiturak mantentzeko izan dira. Egun 1.040 eserleku ditu eta eszenatokia osatzen dute: hiru solairuk eta eszenatokiko kajak, kamerinoak, teknikarientzako gelak, eta orkestraren zuloarekin lotzen den biltegiak. Ilbeltzetik aurrera, behin Udalaren eskuetara igaro eta gero erabakiko da zer nolako aldaketak egiten zaizkion. Nolanahi ere, Udalaren kultura kudeaketa zehazten denean zaharberritzea premiazkoa dela azpimarratu dute.

Kudeaketa zehazteke

1998an eskuz aldatuko bada ere, antzokiaren kudeaketa nola egin da Udaleko alderdiek eta Kultura Galetako arloak buruan darabilten galdera. Joaquín Pascal Kultura Galetako zinegotziak fundazio baten aldeko apustu garbia egin du eta egun horren estatutuak eztabaidatzen dihardute Udalean ordezkatuak dauden bost alderdiek: UPN, IU, CDN, HB eta PSN. Printzipioz alderdiek Gayarreko kudeaketa fundazioaren esku uztearen kontrako iritziak esan ez duten arren, heldu den astearteko Hirigintza Batzordean mahaigaineratuko dute iritzia. Saidek eta Udala sinatutako itzulera akordioaren arabera, Gayarre hiru langile finkoak udal langile izatera pasatuko dira eta Saidek heldu den urteko sei hilabetetean kontratatutakoak dituen ekitaldi kulturalak errespetatuko dira.

Bestalde, fundazioaren estatutuak diotenez, fundazioko administrazio kontseiluan alderdi bakitzaile ordezkarik izan behar du, kudeatzale bat

ere bai, eta oraindik erabakitzeke dago talde kulturalak ordezkaririk izan duten. Era berean, Gayarre Udaaren eskuetan geratzen bertako talde eta kultura ekimenek leku gehiago izanen ote duten ere zailtzat dago.

Fundazioaren estatutuak nola geldituko diren eta kudeaketa nola egiten den zehazteko oraindik alderdien iritzia eta zuzenketak falta badira ere, Ekintza Kulturalerako arlotik Gayarrerri aukera gehiago eman nahi zaizkio. Udala orain arte oso gutxitan erabiltzen zuen antzokia, eta asmo berrien arabera, 300 egun ez erabiliko du urtean. «Formula berarekin eta kostu berarekin 300 egun ez erabiliko dugu. Horrek esan nahi du etxekoek toki gehiago izanen dutela. Gayarrerri etorri ahal izanen da antzokiko atea irekitzea kostatzen dena ordain dezakeena. Gayarre irakitzeko 250.000 pezeta inguru kostatzen da egunero horren erdia ordaintzeko gai denak bere lana egin dezake bertan».

Valentín Redín

«Formula berarekin eta kostu berarekin urtean 300 egun ez erabiliko dugu. Horrek esan nahi du etxekoek toki gehiago izanen dutela. Gayarrerri etorri ahal izanen da antzokiko atea irekitzea kostatzen dena ordain dezakeena»

Udalak itzultzeko akordioa sinatu baino lehen egindako txosten batek dioenez, Gayarre antzokia 50 milioi pezeta kostako litzaioko Udalar urtean. Kantitatea aurreikusitako sarrerei (129 milioi pezeta) produkzioa, publizitatea eta langileria eta mantenimenduagatik aurreikusitako gastuak (170 milioi) kenduz ateratzen da. Kontuan izanik aurten bakarrik Udala Saideri antzokia alokatzen 20 milioi pezeta ordaindu dizkiola, itzultzeari «onuragarri» deritzo Redinek. «Azken urteetan ordaintzen ari zena gehiegizkoa zen. Udala diru asko galdu du. Bere egitaraua egiteko aukerak murrizten ari zen Udala, eta hori negargarria zen».

Nolanahi ere, Udala irabazian aterako den arren, guztia mamitu arte datorren urteko egitaraua eta asmoak zintzilik daude, kudeaketa zehazten ez den bitartean Kultura Galetako sallak ez duelako erabakirik hartuko.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Orixe Tuterara etorri zenekoaz: 1918-1919 (eta II)

Bere lanik garrantzitsuena bezain ezagunena Iruñeko T. Bescansaren alargunarenean agertu zuen 1923.ean, Campiónen sarrera batekin: *Amayur, los últimos navarros*.



Lagundian zegoen Orixere-kiko ordenburuek zituen herra, aiher eta gorroto guziak zertara zetozen asma genezake egiatik gehixegi hastandu gabe. Uste hori berretsi liezagukeen beste zerbaite bere ikasle batekin gertatutakoa litzateke, Pedro Navascués-ekin jazotakoa alegia. Oso irakurria eta kultura zen Orixeren ikasle hau abertzalea zen, eta horrek, nonbait, etxeko errektorearen gorrotoa erakarri zion kupidagebeki. Behin baino gehiagotan zigortu zuten arrazoirik gabe, eta batxillergoa bukatu gabe, baita egotzi ere. Ikasketak Bergaran jarraitu zituen. Puntu honetara iritsirik, komenigarria dateke Orixeren Pedrito hartaz zertzelada batzuk baizik ematea. Pedro Navascués Alarcón 1903.eko azaroaren 13an -zenbait tokitan 1904. urtea badakar ere- sortu zen Iruñean, nahiz, ikusi den bezala, Tuteran zuen bizilekua eta sustraiak, baita hiltokia ere, Tuteran gazterik gazte hil baitzen 1927.eko abenduaren 24an -zenbaitetan 1925.eko abenduaren 31.ean- tuberkulosiak jota. Dena den, zenbait lan izkiriaturik uzteko astirik izan zuen. *Boletín de la Comisión de Monumentos de Navarra* aldizkarian hiru artikulu hauek plazaratu zituen: 'Sobre la defensa de Amaiur' (1921), 'Documentos inéditos' (1923), eta 'La gesta de Roncesvalles' (1924). Izenburuek berek Navascuésen sena abertzale findua salatzen digute aratz eta garden. *Euzkadi* egunerokoaren kolaboratzailea ere izan zen, betiere I. Baigorri edota Miguel Orreaga goitizenen azpian. Bere lanik garrantzitsuena bezain ezagunena, aldiz, Iruñeko T. Bescansaren alargunarenean agertu zuen 1923.ean, Campiónen sarrera batekin: *Amayur, los últimos navarros*,

Estornestarrek Auñamendi bilduman arragertu zutena. Ezin da esan ordenburuek jasanarazi zioten zigorrak, Orixeren ekoizpen idatzian, ez zuela eraginik izan. Tuterara joan orduko, *Jesusen biotzaren Deya* argitalpenerako idazlanak ontzen zituen jada. Alabaina, hauxe ez bide zen arrazola zigortzeko, edo arrazoi bakarra gutxienez, bada Orixerekin batera idazten zuen lagundiaren beste apezgairik bazen, Felix Areitio edota Joakin Azpiazu baten bat aipatzearren, eta hauek ez zituzten zigortu. Edozein modutan ere, Tuteran zegoela argitara eman zituen idazlanen zerrenda honakoa dugu: 'Meza zertarako', *Jesus Biotzaren Deya*, XIII, 1918; 'Ni naiz mats-ondoa ta zuek mats adarrak', *Jesus Biotzaren deya*, XXXVI, 1918; 'Acento vasco', *RIEV*, IX, 1918; 'Vocales compuestas o de acento doble', *RIEV*, X, 1919; 'Ilbel-tza', *Jesus Biotzaren Deya*, XXV, 1919; eta 'Ara jainkoaren bildotsa', *Jesus Biotzaren Deya*, X, 1919. Tuterako egonaldia bitartean ondu zituen olerkiak ez ziren ugari ere: *Zize garata*, *Beizaiaren negarra*, *Ultzia*,

Negu gorria, *Atoz basora*, *Ogi eguna*, *Sukaldean*, *Ittariek*, *Egoaizea*, *Umekeria*, eta *Egurretarako bertsoak* 1918.ean idatzi zituen, eta *Ura ta ardoa*, *Artziak*, eta *Lezoko gurutze doitsuari*, berriz, 1919.ean. Erriberaren agerpena bakar batean dugu, *Ittariek* izenekoan. Olerki hau, Erribera atderra, Koko herrira hain zuzen, heldu diren Iparraldeko eta Nafarroako mendialdeko bi igitarien arteko solastaldia da. Elkarrizketari amaiera emateko, eiek batera, jota bat abes-teari erriben diote. Esangabedoa, Erriberarrak ez dituela ongi jartzen, eta topikoz jositik ehundutako mihise aberkoia aurkezten digu Orixek, garaiko giro euskaltzaleetan nagusi zitekeena, eta egun, hainbeste kalte eta gaizki ulertze eragin eta erakarri ditziguna. Bihoa aipatu jota honen guztiaren azalgarri: «Jo zagun / Kokoarena / Koko txaparrak ill aiztoz / Zorigaitoz / Malkortarrak mardulena! / Ain jatorra / Ain bizkorra / Musua zabal ta zuri / Lepoa lodi ta guri / Oiñarin ta gerribiguñ / Zume ta aritza zirudin / Ittekoan ikuskarri! / Saille-an atzena jarri / Ta zuti geldi gaberik / Saillaren burura aurrenik / Guziek ari begira / Bidean gelditzen dira / Koko zitala, txatxua! / Zertan abila estua? / Ez biziko luzarogan / Erran zun bere gogon / Malkorrerat itzultzean / Adiskide ustez zekarren... / Ez mintza alakorik, arren! / Koko lepamei, besabeltz / Kokobeltz, ankamei, ziri! / Zer erranen diat iri? / Zugatz igarra bezala / Ardoak zimeldu aula / Biotz sua daukakela / Ta mitxikai ona aizela / Malkortar bigun guria / Badirurik axuria! / Ardo orde erreberoak / Mardultze ittik mutikoak / Malkortar gazte leguna / Non duk ire edertasuna? / Ai koko zital gaiztoa!».



etorri ahalean

Patziku Perurena



Petxeroak

Petxero hitza, erta-roan herri bakoitzak ordaintzen zuen *petxa* izeneko zergatik dator. Izatez, gure herririk gehienak erregeren, elizaren edo jauntxoren baten morrontzapeko *petxero* izanak ziren, baina, gerora zenbait ohore eta pribilegio medio, herririk gehienak *libre* edo hobeki esan *injenuo* bihurtzen joan ziren, eta *petxa* orde *censo*, *tributo*... deitzen hasi beren zerga modu berriei. Hori guzia, noski, xehetasun asko bidean utziz.

Bada, juxtu orduantxe, XVI mende aldera, endemas judío, jito, agote eta gisakoen paperezko hidalgiak eta itxurazko nobleziak gailendu ahalean, hasiko ziren herri (edo hobeki herritar) haundiuste batzuk beste batzuei *petxero* deitzen, bereizkeriz edo erdeinuz. Eta ordukeko esanahi batzuk gorde ditu *petxero* hitzak egundaino: *esklabu*, *morroi*, *mixerable* edo *gisakoak*. Ikus, Azkueren edo Lhanderen hiztegiak.

Eta nik esanaz gain, zinezko pasarte bat nahiko bazenu, honatx Goizuetako udal artxibotik ateratako bat: «...que Martin de Leiza Onssalo escribano real natural de Leyça encontró por un día del mes de henero del presente año (1593) a Catalina de Marruquin natural de la villa de Goyçqueta que yba a la Villa de San Sevastián y porque yba descalza le dijo cómo siendo de los Altísimos de Goyçqueta yba descalza, y le respondió que tenía zapatos pero que yba así por su gusto y a esto replicó el dicho Leyça que así habían de yr los que eran pecheros, y que lo eran los de la villa de Goyçqueta, (...) y que no quisiera que la tacha que tienen tubieran la villa de Leyça y sus vecinos...».

Hori eta gehiago, Kattalin Marrukin eta beste biren aurrean leitzarroak esandakoa. Baina, esan bazuen, esan zuen! Ez dakizue ongi nolako lanak para zizkien goizuetarrei, hasi Iruñeko Kortetik eta Orreagako

monasterioan barrena, behar ziren titulu guziak aterez, *petxeroak* ez zirela erakutsi nahian. Zergatik eta, garai hartan: «...el decir que la dicha villa y sus vecinos pagan pecha y que ningún decendiente de ella pueda probar ydalgua es una injuria gravísima que se estiende por toda la posteridad...».

Goizuetari eta Larruni buruzko beste mila kontu jakingarri ere azaltzen da auzian. Izan ere, Martin Gonsalo exkurrabe leitzarrok gurasoak larraundarrak eta beraz «*labradores pecheros*» zituela frogatu nahi baitzuten goizuetarrek, eurekiko iraina kittatzeko edo, esanez gainera Goizuetak beti izan duela: «*fama y opinion de libre y sus vecinos de hijos dalgo sin nota de lo contrario y que por eso los naturales della an probado sus ydalguas y an casado con hijos del Palacio de Ezcurra, Vertiz, Aranivar y otras casas nobles y an sido admitidos en officios de Republica en Guípuscua donde no se admiten sino son hijos dalgo*».

Azkenean, 1620an eman zuen sententzia Iruñeko Kortekak: «*le damos por pena al dicho acussado la carceleria y prision que a tenido y con esto absolbamos a ambas partes de lo demas contenido en la acusacion y recusacion desta caussa*». Noski badituela, beste alderdi aipagarri asko, baina hemen ezin luza ni.

Lehendik esana dut zerbaite gai honetaz (ikus *Zurian Zirika* liburuan APOAK eta NOBLEAK artikulua); orduan axalez esandakoak, ordea, haragitu egin zaizkit orain, apo eta *petxero* maiz putzu bereko gaitzizenak direla jakitean. Lehenaz gain, J. M. Iribarrenek jasotako *pecheros* hitzean nahastu zaizkit zentzuak!

Orain enteintzen dut, Leitzaurrei inguruko herririk *petxero* ek izan dioten zera... Baina *petxero* kontu beltz honek merezi du bere ordain *hidalgo* xuria. Hurrenekoan, behar bada.

Ziria

• Motxorrosolo •


Ajea

Urte akabera kolore guzietako suak edanez igaro ohi dugu, honezkeroz, ur berria, ur uherra edota ur ustela. Usu «hortzetan harrapaturik, badugu otsoaren berri». Ondorengo bestondoa mundiala izaten ohi da. Bestelako biharamunak gurean, Gerediagaren hirien Basilika nobelaren protagonistetako batek euskararen lemazainari egin galderak bestondoren markak ditu, Ipar Euskal Herrian aje hitza arrotza ei da.

Iñaki Agirre Gaztelu Erremontista

«Ez dut heburu bat bera ere»

Iñaki Agirre Gaztelu erremontista leitzarrak joan den ostegunean debutatu zuen profesionaletan, Hernaniko Galarreta frontoian. Atzeko koadroetan aritzen da, eta ez dio helbururik ez mugarik jarri bere buruari, egunetik egunera hobetzen eta ahal duen hobekien jokatzeko saiatuko dela dio.



JOKOAN BEZAIN SEGURUA DA HIZKETAN Gaztelu. Berriketaldi lasai eta azkarreko mutila, iparhalzeak Leitzako kale bazterrak orraztu bidenabar herriko plaza ondoko petrilean aritu da suelta solasean.

■ **Familian erremontistatik ez, baina zuk erreminta hori aukeratu duzu.**

Txikitik eskuz ibiltzen nintzen pilotan, eta gero utzi egin nuen. Banuen Goizuetako lagun bat erremontean aritzen zena, Luis Elizegi. Leitzan Mikel Zestau zegoela ikusirik eta gustatu egiten zitzaidala hasi egin nintzen. Hernaniko Galarreta frontoiko saioetan sartu nintzen eta entrenatzen hasi. Geroztik, joan dira bost urte eta jokoan jarraitzen dut.

Familian beti oso lotura handia izan dugu pilotarekin. Goizuetako osaba guztiek pilota asko jarraitu dute, ez ziren profesionalak baina gustatzen zitzairen, eta aitari ere bai.

■ **Orain, afizio zena ofizio aukeratu duzu?**

Aukeratu baino gehiago etorri egin dela uste dut. Afizionatueta hasten zara, hasieran asmoa kirola egitea besterik ez da, eta gero ikusten duzu balio duzula. Orduan gero eta helburu handiagoak planteatzen dituzu.

■ **Hamaika erremontista gazte pasatu zarete profesional izatera duela gutxi, horietatik lau nafarrak. Sasoi onean da erremontea herrialdean?**

Ez, halabarrez. Nafarroan eta Gipuzkoan jokatzeko da erremontean eta profesionalak izatera pasatu garenak nafarrak eta gipuzkoarrak gara. Dena bi herrialde horietan banatua dago, baina horrek ez du esan nahi

• LUIS AZANZA



herrialdean erremontea ongi dagoenik.

■ **Nolako prestakuntza egiten duzu?**

Egia esan batere ez, edo gutxi

oso. Orain ematen du mugimendu gehiago eman nahi zaiola erremonteari. Erremontea duela berrogeita hamar urte bezala dago. Entrenamenduak ez daude egituratuak. Joaten zara frontoira, lau lagunek jokatzeko dituzue bi partidua 30era, eta etxera zoaz. Beste guztia zeure kabuz egin behar duzu. Prestatu eta lasterka ibili nahi baduzu, zeure kabuz egin behar duzu. Galarretan bakarrik frontoia duzu eta ez daukazu zer komeni zaizun esaten dizun inor. Orain badirudi prestakuntza fisikoarekin sartu-

soslaia

Iñaki Agirre Apezetxea, 22 urteko leitzarra, joan den ostegunean hasi zen profesionaletan, Barrenetxearekin batera Agirresarobe eta Badiolaren aurka jokatu eta 35-30 irabazitako partiduan.



UBira arte Tolosako Laskurain ikastolan ikasia, ikasten jarraitzeko gogoia falta eta aitarekin iturgin aritzen da egun. Etxekoekin beharrez ibiltzeko bietan, erremontean eta iturgintzan, moldatzeko aukera ematen dio. Nolanahi ere, aukeratu behar izanez gero, erremontea eskaintzen dion aukera hautatuko lukeela dio.



Familiako afizioari jarraituz, erremontean eta eskuzkoan ez ezik, ehizan eta arrantzan ahal duen guztietan ibiltzea gustatzen zaio Gazteluri. Parrandazalea ere baden arren, gautxori izaten ahazten hasia da, aurrerantzean serio ari beharko duelako

erremontean. «Hala ere, txikirekin batzuk egin beharko ditugu, baina gehiegi ez», gaineratu du.

ko direla. Iruñean hasi dira eta ireki behar diren eskola berri horietan ere hasiko ote diren esan dute.

■ **Partiduez aparte zuz. zer prestakuntza egiten duzu?**

Partidua jokatzeko orain hasi gara. Partiduez aparte Galarretan entrenatzen jarraituko dut frontoira ohitzeko. Lasterka ere hasi beharko dut eta gimnasioren batean ere bai. Orain arte oso-oso

gutxi aritzen nintzen, noizean behin korrika.

■ **Erremontea eskola berriak zabaldu behar dituzte Nafarroan: Tafalla, Lizarra, Altsasu eta Donezteben, hain zuzen ere. Orain arteko prestakuntza aldatuko dute?**

Nik uste baietz. Horrek sekulako bizia emanen dio erremonteari eta hasten ari garen gazteoi. Erremontea oso jende gutxi ezagutzen du, oso mugatua dago. Eskolak hastekoak diren horretan saski asko egin zituzten herrietara bidaltzeko eta gazteek mugimendua sumatuko dute eta nik uste afizioa sortuko dela. Eskuzkoa oso ezaguna da eta asko jarraitzen da, komunikabideek ere askoz gehiago jarraitzen dute. Gainera, askoz ere eskuragarria da. Zuk pilota bat baduzu, edozein tokitan duzu jokatzeko modua, baina erremontean behar duzu saskia, asko balio duen pilota eta edozein frontoitan ez dute aritzen uzten arriskutsua delako.

■ **Zure ezaugarri onena segurua izatea omen da?**

Ez dakit. Jokatu ditudan partiduetan ongi aritu naizelako esaten dute hori, baina hurrengo partiduan kanpora hamar botatzen baditut, non dago nire segurtasuna? Erremontean erraza da pilota botatzea eta jokalarriak sartu egin behar du. Hain azkar jokatzeko denez, zabalera eskapatzen da edo gehiegi engantxatzeagatik ezker paretara jo eta kanpora botatzen duzu. Onak dira asko sartzen dutenak eta batzuek kristoren egurra dutelako. Askok ibiltzen dira eta eman eman egiten diote.

■ **Beraz, asko duzu hobetzeko?**

Bai, asko. Hasi besterik ez naiz egin, eta poliki-poliki dena hobetu behar da. Kantxan asko ibili behar da erremontean. Pilota gero eta gehiago sartu behar da, eta indarra hartu behar da. Pilota zailak ekartzeko ikasi eta errebotea ere bai. Teknika handia behar da, hori eta indarra baduzu hoberena izan zaitezke.

■ **Etorkizunerako helbururik bai?**

Ezta bat bera ere. Ahal den hobekien jokatu eta ahal den partidu gehien irabaztea dut helburu. Zaila ikusten dut neure burua hoberekin aranean, ia ezinezkoa da. Koteto Ekarria da erremontean handiena, eta hark markatu dituen diferentziak lortzea oso zaila da.

→ Irene Arrizurieta

«Erremontea duela 50 urte bezala dago. Frontoian lau lagunek jokatzeko ditugu bi partidua 30era eta etxera goaz. Beste guztia zeure kabuz egin behar duzu. Eskola berriek sekulako bizia emanen diete erremonteari eta hasten ari garen gazteoi»

Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1997ko abenduaren 12a

BEKARIO!

ZALDI ERDA



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

«Urteberri, urtezar Oreja galtzar»

AURTENGO ARGIA IRAUNGI HURREN dagoen honetan, hasiak dira, harat-honat, urteak ekarritakoaren edo eramandakoaren neurketa egiten. Funtsezko urtea izan omen da indarkeria eta honen bozeramalleak apalarazteko. Ermuko gaztearen hilketa lazgarriak erotik astindu zuen gizartea. Horretan, bederen, gehiengoak ados dira. Ez datoz bat, ordea, uztailen sortutako giroa baliatzerakoan. Izan ere, Oreja ministroa, behin eta berriz, erraten ari da udatik honat gizarteak bere egin duela PPK dioena. Orejaren jokabidea ETAREN indarkerian datza, erran nahi baita, bere kaskezur itxiak kontutan hartzen du soil-soilik ETAREN ihardue-ra. Horrexegatik, talde horri eta inguruko buru egin bertze biderik ez du hartzen haren pentsamentuak. Eta bazter horiek jo bidenabar euskal abertzaletasuna eta euskalzaletasuna ziprztintzen baditu, aunitzez ere hobe. Bere politika moldeari ezinbertzean beharrezkoak zaizkio tiro hotsak eta banku erreketak, bertzenaz joko kanpo gelditzen da. Horregatik, HBko mahaikideen zigor burugabeari ematen ari zaion erantzuna ez da, oro har, Orejaren gustukoa izaten ari, ELA eta LABEN eskutik datorren ekimenak bere bidea hankazgora baitu, hiltzez eta giltzez, hertsirik dagoen bakearen atezarraren erro herolduelo zentzuzko olio itxaropentsua iritsi zaie. Jakina, Barne Ministerioan salatuko dira erro herolduok bere horretan uzten, eta, bertze muturrean batzuk ere salatu dira, saiatu direnez, gisa orotako atentatuen bide hori trabatzen. Eta argi eta garbi errana dago, bide horrek baketsua behar du aitzinera segituko badu. Hortaz, abenduan izekitako argia ez dezala urtezahar gauak hil.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Iruña:** Heldu den ostegunean, hilak 18, **Jean Mixel Bedaxagarrek** kantaldia eskainiko du 20:00etan Indatxikia kaleko Katatxu ostatuan. Ondoren afaria izanen da.
- **Iruña:** **Pablo Sarasate Orkestrak** kontzertua eskainiko du gaur, 20:00etan, Gayarre antzokian.
- **Tafalla:** **Luur-metalls Spanish Brass Quintet metal boskoteak** kontzertua eskainiko du Kultur Etxean etzidamu, 20:00etan.
- **Burlata:** **Komak** eta **Berri Txarrak** taldeen kontzertua izanen da bihar Askatasuna frontoian, 23:00etan. Sarre-rak 1.000 pezeta balio du.

ERASKUSKETAK

- **Tafalla:** Kulturako Udal patronatuko erakusketa aretoan *Los encuentros de Pamplona 25 años despues* erakusketa ikusteko aukera dago heldu den abenduaren 24ra arte.
- **Lizarran:** **Luis Garridoren** Nafarroari buruzko marrazkiak biltzen dituen erakusketa zabalik dago Gustavo de Maeztu museoan datorren urtarrilaren 6a bitartean.
- **Barañain:** **Vicente Peiro, Jose Luis Irigoien** eta **Javier Rodriguez** argazkilarien lanak biltzen dituen erakusketa zabalduko da gaur, 19:30etan, Kultur Etxean. Erakusketa abenduaren 30a arte izanen da zabalik, asteartetik ostiralera 19:00etatik 20:30etara.

ANTZERKIA

- **Iruña:** **Belen Alvarez** euskaraz kontu kontari ariko da datorren asteartean, 20:00etan, Gaztediaren Etxean.

BESTELAKOAK

- **Altsasu:** Gaur bertso afaria izanen da Herria Eginez elkartearen 21:00etan. Bertso kantari ariko dira **Mikel Urdangarin** eta **Ekintza Landa**. Bertso saioren ondotik Kima bertso paper lehiaketako sariak banatuko dira.
- **Iruña:** Euskara klaseak AEKn. Matrikulazio epea zabalik dago Iruñerriko zentroetan: Alde Zaharra, Txantrea, Donibane, Burlata, Uharte, Arrosadia, Zizur, Gares, Galar, Antsoain,

- Errotxapea, Mendillorri, Beriain, Noain... Informazio gehiago 212701 telefonon lor daiteke. Kurtsoa ilbeltzaren 8an hasiko da.
- **Iruña:** Inaki Irazabalbeitia Elhuyarrek zuzendariak *Zientzia egiten al dugu Euskal Herrian?* hitzaldia eskainiko du datorren asteazkenean, Erraldoien Txokoa, 20:00etan.
- **Iruña:** Gabonetako azokak atek zabaldu ditu Yanguas eta Mirandako aparkalekuan. Azoka datorren urtarrilaren 6ra arte egonen da zabalik 10:00etatik

14:00etara eta 17:00etatik 22:00etara.

- **Iruña:** Sex Haizegoak Testu Laburreko III. Literatura Erotikoko lehiaketa antolatuko du. Lanak aurkezteko epea 1998ko urtarrilaren 31n bukatzen da. Informazio gehiago 154231 telefonon lor daiteke.
- **Iruña:** Xabier Santakiteriak olerki errezitaldia eskainiko du datorren abenduaren 18an, 20:00etan, Gaztediaren Etxean. Errezitaldia Kañachama Txileko doinuak jotzen dituen taldeak lagunduko du.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



Phonotele Marrukuku

Taldea eta gasna guria, Matxentxonon erara

Errotazakar
☎ 123234434
Iruzkun

Dastatu gure MAIZURDINDUE, Ultzaman guda ostean mutxurdinek jaten zuten arto-opila. Txapela kentzekoa!

